



**Arartekoaren ebazpena, 2007ko azaroaren 22koa. Horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari gomendatzen zaio Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsi dezala babes ofizialeko etxebizitza bat eta, ondorioz, zerga-onura horren baitan oker jasotako zenbatekoak itzul ditzala.**

### Aurrekariak

1. (...) jauna Arartekoari zuzendu zaio eta adierazi dio ez dagoela ados Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak babes ofizialeko etxebizitza bat eskualdatzerakoan bideratu duen prozedurarekin. Halaber, eskualdatzeko modu horrek eragin dizkion ondorio kaltegarriak ere salatu ditu, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsi nahi ez izatea.
2. Erreklamatzailleak babes ofizialeko etxebizitza bat erosi eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren autolikidazioa egin ondoren jakin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdatzei zerga-salbuetspena aplikatzen diela. Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundira jo zuen eta babes ofizialeko bere etxebizitza eskuratzeko moduari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa babes ofizialeko etxebizitzaren gainerako besterentzei ematen dien zerga-tratamendu bera aplika diezaiola eskatu zuen.
3. Ondorio hauek egin direneko datan Gipuzkoako Foru Aldundiak oraindik ez du berriazko ebazpenik eman (...) jaunak eskatutakoari dagokionez.
4. Erreklamatzailleak kexa-idazkian adierazi zuenez, babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdatzea partikular batekin (hots, etxebizitzaren lehengo jabearekin) eskritura publikoan egin zen arren, babes ofizialeko etxebizitza baten onuradun izateko hautaketa eta etxebizitzaren ondorengo esleipena Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailera atxikita dagoen VISESA sozietate publikoak egin zuen eta, Etxebizitza Sailburuordetzaren 8/2005 Instrukzioa aplikatuz, "Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei" buruzkoa, VISESAk babes ofizialeko etxebizitza nola eskualdatuko zen azaldu zion, kasu



honetan, etxebizitzaren lehengo jabeak zuzenean emandako eskritura publikoaren bidez.

Esandakoaren froga gisa, (...) jaunak etxebizitza babestua erosteko eskrituraren kopia erantsi dio bere idazkiari. Eskriturak honela dio: *“erosleak jasota utzi nahi du, ondorio guztietarako eta, bereziki, etorkizunean (baina inolaz ere ez saltzailearen aurka) sor daitezkeen arazo eta erreklamazioen ondorioetarako, baita zerga-ondorioetarako ere, etxebizitzaren esleipendun den heinean, bidezko administrazio prozeduraren bidez hala hautatuta, VISESAk etxebizitza eskualdatzeko erabaki eta baldintza guztiak ezarri dizkiola; erosteko prozesuan izan diren harreman guztiak VISESAren bidez gauzatu dira (horientzat, VISESA da benetako eskualdatzailea) eta erreklamatzailerak formalki saltzaile gisa ageri denarekin bakarrik egon da harremanetan, VISESAk eskritura hau ematerakoan ezarritako baldintzak betez. Hori guztia gorabehera, zenbait altzari eta tresna erosi dituzte, beren kabuz, bi alderdiek, nahiz eta hori egiteko aukera, hasieran, VISESAk eskaini zuen”*.

5. (...) jaunak aurkeztutako kexan bi administrazio publiko desberdinen jardunak jarri zirenez zalantzan (hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena), beharrezkoa iruditu zitzaigun, dagoeneko espedientea bideratzeko fasean, bi administrazio publikoetako bakoitzari zegozkion alderdiak bereiztea. Horrek bi idazki egitea ekarri du, bata Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari zuzendua<sup>1</sup> eta bestea, esku artean duguna, Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzendua.
6. Erreklamatzailerak argudiatutakoa ikusita, lehenengo informazio eskaera bidali genion Gipuzkoako Foru Aldundiari eta, bertan, behin-behineko zenbait gogoeta egin genituen Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuestearen alde. Labur-labur arrazoitu genuen babes ofizialeko etxebizitza Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak nahitaez esku hartuta (horretara atxikitako VISESA sozietate publikoaren bidez) erosi zela eta Sailak berak Etxebizitza Sailburuordetzaren 8/2005 Instrukzioan, “Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei” buruzkoan, ezarritako prozedurarekin bat etorritz.

---

<sup>1</sup> Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari bidalitako gomendioaren kopia erantsi da.



Halaber, azpimarratu genuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardunak garbi uzten zuela etxebizitza bigarren edo ondorengo eskualdatzeen bidez erosi zituztenei beste zerga-tratamendu bat, inolako justifikaziorik gabekoa, aplikatu izana eta tratu desberdin hori eskuratzailerekin zerikusirik ez zuen alderdi baten arabera zegoela, alegia, etxebizitzaren jatorriaren arabera (lehenespenez eskuratzeko eskubideaz edo lehengo jabeak egindako salmenta-eskaintzaz baliatu izanaren ondorioa).

7. Erantzun idazkian Gipuzkoako Foru Aldundiak honela dio: *“Arartekoari zuzendutako kexaren egitatezko kasua zergapeko egitatea da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, ondare eskualdatze gisa, zergadunak autolikidazioan aurkeztu zuen moduan, eta, beraz, ezin aplika dakiok abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauaren 41. artikuluan ezarritako salbuespenetako bat bera ere”*.

Foru administrazioak uste du erreklamatzaileren egitatezko kasua salbuespen gisa tipifikatzeak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 13. artikuluan ezarritakoa urratzea eragingo lukeela (foru arau horrek analogiaz jokatea debekatzen du salbuespenak eta gainerako zerga-onurak edo pizgarriak zabaltzeko) eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ekartzen du ahotara; bertan, honakoa aipatzen da: *“zergei buruzko xedapenak, bereziki, salbuespenak egiten dituztenak, hitzez hitzeko edukiari zorrotz lotuta aplikatu behar dira, salbuespena biltzen duen legezko testuan zehatz-mehatz baimenduta ez dagoen hautemate hedakorrik edo murriztailerik egin gabe”*.

8. Gure lehen informazio eskaeran emandako arrazoibideak onartu ez zirenez, beste idazki bat bidali genion Gipuzkoako Foru Aldundiari eta, bertan, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsia izateko erreklamatzailak zuen eskubidea justifikatzen zuten arrazoiak sendotzen saiatu ginen.

Ildo horretatik, azpimarratu genuen, babes ofizialeko etxebizitzaren salerosketa-eskirituran eskualdatzaile gisa formalki Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa agertzen ez zen arren, etxebizitza babestua nola eman zen ikusita garbi zegoela Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila tartean izan zela; honek, prozedura sinplifikatuaren bidez, saltzaile eta erosle



partikularren artean etxebizitza babestua zuzenean eskualdatzen zela pentsarazten zuen.

Horrela, eta prozeduran ekonomiaz eta arintasunez jokatzeko aldera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Etxebizitza Sailburuordetzaren 8/2005 Instrukzioaz baliatuta, prozedura naturala saihestu zuen, hau da, ez zuen eskaintako etxebizitza erosi eta hori, gero, erreklamatzailerari saldu; prozedura hori oraindik ere aplikatzen da lehenespenez eskuratzeko eskubideaz baliatuta erosten diren etxebizitzaren kasuan. Are gehiago, erreklamatzailerak etxebizitza erosi zuenean bideratu izan balitz, ez zen eragozpenik egongo hura Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuesteko.

Hala ere, edozein interpretazio zalantza argitze aldera, informazioa eskatzeko egin genuen bigarren eskaeraren amaieran adierazi genuen, erreklamatzailerak etxebizitza erosi duen modua materialki bat datorren arren foru arauan jasotako salbuespenarekin, arrazoizkotzat eta bidezkotzat jo genuen Gipuzkoako Foru Aldundiak berak eskatzea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, erreklamatzaileraren egitatezko kasuan, eta behin prozedura amaituta, eskualdatzaile gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa agertzen ote zen justifikatzeko beharrezko dokumentazioa.

9. Bere erantzunean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bereari eusten dio eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetiko salbuespena aplikatuko ez duela adierazten du. Halaber, honakoa ere azpimarratzen du: *“Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak salerosketa-eragiketan parte hartzen duen ala ez duen alde batera utzita, eskritura publikoak dio partikular batek babes ofizialeko etxebizitza eskualdatu duela. Hortaz, ezin da lortu nahi denaren moduko salbuespenaz gozatu, hori Euskal Autonomia Erkidegoak egindako eskualdatzeei bakarrik baitagokie.”* Orobat, honakoa gaineratu du: *“salbuespen hori hizpide dugun kasuari aplikatzeak, arestian aipatu dugun bezala, salbuespenaren hautemate hedakorra egitea eragingo luke, hori beren beregi debekatzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 13. artikulua (horren arabera, ez da analogia onartuko salbuespenen esparrua bere zentzu hertsitik haratago ulertzeko)”*.



Erreklamazioa ikusita, kexaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalitako informazioaren planteamendua aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honakoak zuri helaraztea:

### Gogoetak

1. Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauaren 41.1.B.13 artikulua dio honakoak zerga ordaintzetik salbuetsita egongo direla:

*“Euskal Elkarte Autonomoko Administrazioak bere eskumenetan aritzean egiten dituen Babes Ofizialeko etxebizitzaren eskualdaketak”.*

Hortaz, kasu honetan arauak deskribatzen duen egoeran ote dauden aztertu behar da eta, hala, eztabaidatutako zerga-salbuespena aplikagarria den ala ez den ikusi.

2. Babes ofizialeko etxebizitzari dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sail eskudunaren bidez egiten dituen eskualdatzeen egungo araudiak hiru modu bereizten ditu babes ofizialeko etxebizitzaren bigarren edo ondorengo eskualdatzeak egiteko.

Hain zuzen ere, Etxebizitza Sailburuordetzaren 8/2005 Instrukzioak, “Sailari eskaini zaizkion edo bere esku utzi diren eta lehentasunez erosi diren etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei” buruzkoak, helburu nagusia “*prozesua arindu, etxebizitza bera bitan eskuratzea saihestu eta uko-egiteen bolumena murriztuko duten prozedurak bilatzea*” izanik, babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdatzeetan Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak nola jokatu behar duen bereizten du, babes ofizialeko etxebizitza lehenespenez eskuratzeko eskubideaz baliatuta lortu den (apirilaren 15eko 7/1988 Legean araututa) edo titularrak zuzenean Sailari salmentan eskaini dion babes ofizialeko etxebizitza den kontuan hartuta.

Lehen kasuan, 7/1988 Legean jasotako arauko aurreikuspena eta hori garatzen duen araudia (maiatzaren 6ko 103/1997 Dekretua) aplikatzen da; horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa behartuta dago etxebizitza erostera, hori, gero, etxebizitza babestuak esleitzeko prozedurarekin bat etorritik hautatzen den pertsonari eskualdatu ahal izateko. Babes ofizialeko



etxebizitza eskuratzen duen pertsona Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsita geratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa agertzen baita eskualdatzaile gisa.

Bigarren kasuan (titularrek salmentan eskainitako babes ofizialeko etxebizitzak), 8/2005 Instrukzioak, eskualdatzeko prozedurak sinplifikatu eta ekonomizatzeko asmoz, babes ofizialeko etxebizitzaren titularrari aukera ematen dio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aukeratutako pertsonari etxebizitza eskritura publikoan saltzeko. Halakoetan, eskualdatzaile gisa partikular bat agertzen denez, foru administrazioak, 18/1987 Foru Arauaren 41.1.B.13 artikulua hitzez hitz interpretatuta, ez du onartzen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea, babes ofizialeko etxebizitza eskualdatzeko kasu arruntenetako bat izan arren.

3. Aurreko interpretazioaren emaitza gisa, ez dira berdin tratatzen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hala aginduta lehengo jabeak eskualdatutakoak diren babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzen dituztenak eta horiei ez zaie aukerarik ematen, antza arrazoi objektibo eta bidezkorik adierazi gabe, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita geratzeko. Horrek, argi eta garbi, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan ezarrita dagoen eta Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan eta 31.1 artikuluan onartzen den berdintasun printzipioa urratzen du.

Konstituzio Epaitegiak hainbatetan eman ditu erabakiak zergak direla eta legearen aurrean egon behar duen berdintasunari buruz. Horrela, adibidez, Konstituzio Epaitegiaren 57/2005 Epaiak halaxe berresten du: *“Legearen aurrean berdinak izatearen printzipioak antzeko egoera juridikoetan daudenei tratamendu bera emateko betebeharra ezartzen dio legelariari eta desberdintasunez jokatzeari debekatzen dio, betiere, zalantzan jarritako arauaren xedearen ikuspegitik, justifikazio objektibo edo arrazoizkorik ez badu edo justifikazio horrekiko neurritz kanpoko baldin bada. Laburbilduz, berdintasun printzipioak oro har onartuta ez dauden irizpideetan edo balio-judizioetan oinarrituta ez egoteagatik tolesak edo justifikaziorik gabekoak diren desberdintasunak debekatzen ditu. Gainera, Konstituzioaren ikuspegitik tratu desberdintasuna zilegi izan dadin, alde horretatik sortzen diren ondorio juridikoek lortu nahi den xedearen arabera izan behar dute, emaitzak oso kaltegarriak edo neurrigabeak izan ez daitezzen ...”*.



4. Gipuzkoako Foru Aldundiak salbuespena aplikatzearen aurka egiteko eman duen arrazoibide bakarra da salbuespenaren hautemate hedakorra egitea eragingo lukeela eta hori debekatuta dagoela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 13. artikuluan. Honela dio:

*“Analogiaren erabilera ez da onartuko zerga-gaiaren, salbuespenen eta gainerako zerga onura edo pizgarrien esparrua bere zentzu hertsitik haratago ulertzeko”.*

Hori dela eta, adierazi behar dugu erakunde honen asmoa ez dela salbuespena foru arauak berak jasotzen ez duen kasu bati aplikatu behar zaiola defendatzea (aplikazio analogikoa), baizik eta erreklamatzailerak babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko modua bat datorrela 18/1987 Foru Arauaren 41.1.B.13 artikuluan ezarritako salbuespenarekin, aplikatu behar den garaiko gizarte errealitatera egokitzen den eta haren espirtu eta xedeari erantzuten dion zergei buruzko arauaren interpretazioari jarraiki (Kode Zibilaren 3.1 artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 11. artikulua). Gure proposamena ez da zerga-salbuespena modu hedakorrean aplikatzea, hori debekatuta baitago Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 13. artikuluan (eta baita horren baliokidean ere, Zergei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikuluan); aitzitik, araua arrazoiz interpretatzea baino ez dugu nahi eta 18/1987 Foru Arauaren 41.1.B.13 artikuluko egitatezko kasuan lehengo titularrak bere borondatez saltzen duen babes ofizialeko etxebizitzaren bigarren eskualdatzeak ere barneratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehenespenez eskuratzeko duen eskubidearen eraginez babes ofizialeko etxebizitza eskualdatzeko kasuak jasota dauden bezala.

Ildo horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatutako jurisprudentziaren aurka, zerga-salbuespen eta hobarien interpretazio murriztaileari dagokion printzipioa bazter uzten duen jurisprudentziako doktrina argudiatu behar da. Adibide gisa, Nafarroako Foru Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren ondorengo arrazoibideak aipatu behar dira (martxoaren 17ko 406/2000 epaia):

*“Hain zuzen ere, doktrinak 70eko hamarkadaren hasierako urteetan agerian jarri zuen bezala, planteamendu horrek (salbuespenen interpretazio murriztailearenak) nahaste tamalgarria dakar Zergei buruzko Lege Orokorraren 23. artikulua benetako esanahiari dagokionez, gauza bat analogia*



*baita eta bestea, berriz, arau juridikoen interpretazioa. Horrela, lehenengoan ordenamendua integratu egiten da; horren bidez, arau bat bertan inplizituki edo esplizituki jasota ez dauden egitatezko premisetara zabaltzen da. Bigarrenean, aldiz, arauaren zentzua, helmen eremua eta xedea ezagutzea da helburua. Funtsezko bereizketa horretatik abiatuta, derrigor onartu beharra dago interpretazio analogikotzat hartutakoa berez ez dela hala, horren helburua ez baita arauaren zentzua argitzea, baizik eta Zuzenbidearen hutsuneak integratu edo osatzea. Bistakoa den bezala, horretarako beharrezkoa da araututa ez dagoen egitatezko kasuari aplikatu nahi zaion araua aurrez interpretatzea. Hori gorabehera, ez dira bi fenomenoak nahastu behar.*

*Zergei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikulua dio ez dela analogiaren erabilera onartuko zerga-salbuespenen eta hobariaren esparrua bere zentzu hertsitik haratago ulertzeko. Manu horrek, ordea, ez du salbuespenak edo hobariak eratzen dituzten arauak interpretatzeko irizpide zehatzik ezartzen eta, beraz, horiek gainerako zerga-arauak interpretatzeko erabiltzen diren irizpide edo metodo berdinak aplikatuta interpretatuko dira. Irizpide horiek arau juridiko orokorrak interpretatzeko erabili ohi direnen berdinak dira. Horregatik, manu horretako 1. idatz-zatiak honakoa aipatzen du, Kode Zibilaren 3.1 artikuluari lotuta: “zerga-arauak Zuzenbidean onartutako irizpideekin bat etorritik interpretatuko dira”.*

*Ikus daitekeen bezala, Zergei buruzko Lege Orokorraren 23. artikulua (...) inolaz ere ez du eraginik salbuespenen interpretazioan; bestela esanda, interpretazioaren ikuspegitik, salbuespen eta hobariei buruzko arauak ez dute inolako berezitasunik gainerako zerga-arauekin alderatuta eta, beraz, analogiaren interdikzioak ez dakar emaitza murritzalea edo hertsia izango duen interpretazio irizpiderik “a priori” hartu beharra. Auzitegi Gorenaren hitzetan (1997-07-28ko epaiaren 14. oinarria), ez da egokia zerga-arauak (nola zergei buruzkoak izan hala zerga-onurak ematen dituztenak izan) aldeztu aurretik pentsatutako irizpideekin interpretatzea; aitzitik, ahaleginak egin behar dira arauak lortu nahi duen xedea bete dadin”.*





Jurisprudentiako doktrina honekin bat etorriz, uste dugu Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea arautzen duen foru arauaren xedea babes ofizialeko etxebizitza erosten dutenen zerga-zama murriztea dela, pertsona horiek etxebizitza-premia berezia egiaztatu dutela kontuan hartuta eta, horrela, pertsona orok etxebizitza duin eta egokia izateko duen eskubidea benetan gauzatzeko beharrezko baldintzak sustatzen lagunduta. Foru Arauaren interpretazio teleologiko horrek ez du inolaz ere onartzen erreklamazioaren kasuan eman den bereizkeriazko tratua.

5. Are gehiago, aipatu beharrekoa da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren iritzia, kexa-espeditzeko ikerketa-izapideak egiterakoan lortua. Iritzi hori argi eta garbi azaltzen da honako adierazpen honetan:

*“... sail honen ustez, babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdaketei aplikatzen zaien Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokion zerga-tratamenduak bera izan behar luke hiru Lurralde Historikoetan egiten diren bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan, eskualdatzailea edozein dela ere, egitatezko gainerako inguruabarrak objektiboak baitira, hau da, eskualdatu beharreko etxebizitza indarreko babes erregimenetako batean dago eta eroslea beti etxebizitza babestu horren onuradun izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko Administrazioak egiten dion kontrola gainditu duen esleipenduna baita”.*

6. Amaitzeko, esku artean dugun kasuarekin zuzenean erlazionatuta dagoenez eta foru araua egungo garaiko gizarte errealitatearekin bat etorriz interpretatze aldera, Eusko Legebiltzarrak 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren eztabaida dela eta berriki eman duen ebazpena ere aipatu behar dugu. Bertan, honakoa adierazten da:

*“Legebiltzarrak Jaurlaritzari eta Foru Aldundiei eskatzen die, bakoitzak haien eskumenen barruan, neurriak bultzatzeko zailtasun handienak dituzten giza taldeek etxebizitza eskura dezaten, bereziki, gai hauek landuz:  
- Babes publikoko etxebizitzaren zergak jaistea.”*



Hori guztia dela eta, Ararteko erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten da:

**45/2007 GOMENDIOA, azaroaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari egina**

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergatik salbuetsi dezala (...) jaunak babes ofizialeko etxebizitza bat dela eta egin duen eskuratzea eta, ondorioz, zerga-onura horren baitan oker jasotako zenbatekoak itzul ditzala.